

Kultur politikei buruzko mintegia

2008ko urriaren 11

Iñigo Urkulluren hitzaldia

Egun on, denoi:

Gaur abiatuko dugu XXI. mendeko abenturako kultur politikatzat jotzen dugun guztiari buruzko gogoeta egiteko helburua daukan mintegi hau. Lehenik eta behin, gaur gurekin dauden hizlariari eskerrak eman nahi dizkiet. Josuneri, Ricardori eta Noemíri, noski eta, bereziki, Roberto Gómez de la Iglesiari eta Eduard Mirallesi. Kanpo aholkulariak dira eta Think Gaur Euskadi 2020 ekimen berri honetan lagunduko digute gaur.

Gaur larunbata izanda ere hona etorri zareten ehundik gora kultur zinegotzietan eta arduradunetan ere eskerrak eman nahi dizkizuet. Topaketa honetan gure kultur politikak aztertuko ditugu.

Kultura, beste arlo batzuekin batera –adibidez, hezkuntza, gaztedia, ongizatea, gizarte ekintza eta hiriaren egituraketa–, gure herrialdea gizabidez eraikitzeke lehentasunezko eremuak dira. Think Gaur ekimeneko oinarritzeko arloak ere badira. Ekimen honen xedea gogoeta parte-hartzaile eta adostua izatea da.

Kultur politikak kultur estrategiak dira eta erakunde publikoek ezarri behar dituzte, gizarte eta kultur eragilean laguntzaz.

Guggenheim Bilbao apustu arrakastatsua martxan jarri genuenetik, zorionez, kultura agenda politikoaren lehentasunen artean jarri da.

Lehen, kultur politikak gastutzat jotzen genituen, gauza ukiezintzat, baina, orain, haiekin ere lana eta aberastasuna sortzeko aukera dagoela frogatu dugu.

Euskadiko erreferentziazko kultur programei eta ekipamenduari buruzko txostenek urtero-urtero ematen dizkiguten datuek frogatzen digutenez, azpiegitura horien aldeko apustua erabaki sendoa eta zuzena izan zen eta gure herrialdeko motor estrategikoetako bat da.

Euskal Autonomia Erkidegoan aisialdian, ikuskizunetan eta kulturari **2.000 milioi euro** inguruko gastua egiten dugu.

EAJk, Think Gaur proiektuarekin egiten ari garen gogoeta plan orokorraren baitan, leihoak ireki nahi ditugu, gaur egun erreferentziazkoak eta jardunbide on egiaztatuak diren kultur ekimenen eta proiektuen bidez freskatzeko.

Gure kultur errealitatera aplikatuz gero 2020ra arteko jarduera ildoak definitzen lagunduko diguten jardunbide on horietan sakondu behar dugu.

Gure ingurunean gogoeta euskarri sendoak eta, aldi berean eredugarriak, dauzkagu.

Erakunde eta herrialde gutxik egin dute Euskal Kultur Plana sortzeko egin duguna bezalako prozesu parte-hartzaile sakona. Erakundeen iritziaz gain, Euskadiko kultur ekoizpenean bete-betean lan egiten urteak daramatzaten kultur eragileena ere jaso dugu.

EAJren apustua da herritar guztiek batera eraikitzea kulturatzat, kultur gertakaritzat, kultur baloretzat, nortasuntzat eta erreferentziatzat jotzen duguna.

Argi ikusten dugu kulturak hiru funtzio dauzkala: gizartea artikulatzea, komunikazio adierazkorra eta komunitate pluralean zentzuak sortzea zein ekoiztea.

Horregatik, uler dezakegu kulturak ez duela produktu bat bakarrik izan behar, prozesu bat ere badela aldi berean, harremanetarako gune bat.

Kultura, gure ustez, nortasun kolektiboa eta pertsonala da aldi berean, sorkuntza, festa, hedapena, ondarea, baloreen transmisioa.

Kulturaren aldeko apustua egiten dugu eta, bereziki, mundura irekitako euskal kultura baten aldekoa. Horretarako, erronkak eta lehentasunak zehaztu behar ditugu, kultur sistema berezia sustatu, ezaugarri eta nortasun propioa izango duena, testuinguru globalean onartua eta ezagutzeko modukoa izango den kultur komunitate bat.

Kulturak, hezkuntzak eta berezko hizkuntzek gizarte batasuna bultzatzen lagun dezaketela eta lagundu behar dutela uste dugu. Garapen demokratikoa bultzatzen ere lagun dezakete, Bernardo Atxagak proposatzen duen Euskal Hiria sortzeko.

Belaunaldi berriak beren bideak eta ideiak eraikitzen ari dira eta gaur egungoek tresna zein gogoeta sendoak eta baliagarriak eman behar dizkiegu, beren nortasuna eraiki dezaten.

Gaur egungo gazteentzat kontsumismoa beren bizitzaren parte da eta ez daukate hori zalantzan jartzeko asmorik.

Batzuek Einstein Belaunaldia deitzen diote oraingoari; aurrekoak Babyboom eta X belaunaldiak izan ziren. Kontsumo gizarteak kezka eragin ordez, poza ematen die eta etekin handiena nola atera pentsatzen dute uneoro.

Kontsumo gizartea ez dute hutsalkeiatzat hartzen, beren eraginaz baliatzeko aukeratzat, euskarriak ezagutuz gero beren alde erabil dezaketen tresnatzat baizik.

Horrek esan nahi du gaur egungo gazte gehienek ez dutela haien inguruko errealitatea gainditu beharreko oztopotzat jo, beren lekua aurkitzea erronka nagusi gisa ezartzen dien unibertso zirrargarritzat baizik.

Testuinguru honetan, kultur estrategiek funtsezko rola izan behar dute pertsona bakoitzaren eta interes edo gustu komunak dituzten taldeen errealitatea eta nortasuna eraikitzeari dagokionez.

Nahi duguna izango gara, nondik eta zergatik gatozen dakigun neurrian.

Batzen gaituenetik abiatuta eraikiko dugu, berezitasunean oinarrituz, baita gure memoria eta herri gisa egin dugun ibilbide historiko zein kulturala onartuz ere.

Mundu gero eta indibidualista, materialista eta hedonistagoari aurre egiteko moduko balore berriak sustatzean sakonduz eta definituz eraikiko dugu.

Balore horiek alderdi hauetan sakondu behar dute: askatasunean, bizitzeko eskubidean, aniztasunaren errespetuan, berdintasunean (eskubide eta betebehartzat hartuta), herritarren konpromisoa eta militantzia prozesuak sustatzeko aukera emango digun parte-hartzean eta sorkuntzan (mundu global honetan eduki propioak izango dituen diskurtso sendo baten euskarri gisa).

Horregatik, herritarrek eta erakundeek beharrezkoak ditugun berezitasunak eta haiek osatuko dituzten gertuko-inguruko gauzak bereiztea nahi dugu.

Helburua argia da: bakartzera bultzatuko gaituzten egozentrismo antzuak saihestea.

Gutxitu izan arren nortasun handia daukagun kulturok aukerak baliatzen jakin behar dugu. Gure indarrak, gure bitartekoak eta teknologiak ongi eta zentzuz erabili behar ditugu, gure beharren arabera eta edukiak sortzeari eta ekoizteari garrantzi handia emanez.

Mass mediekin aliantzak bilatzen jakin behar dugu, iritzi sortzaileak baitira. Gainera, kultura sortzeko, sustatzeko eta hedatzeko gero eta konpromiso aktiboagoa hartu behar dute.

Informazioaren eta Jakintzaren Gizarteak, kultura demokratizatzen laguntzeko tresna gisa, informazioa jakintza bihurtzeko tresna baliagarria izan behar du eta ez du komunikazio lengoia berrietan analfabetorik sortu behar.

La promoción y construcción de la ciudad vuelve a estar de actualidad. Debemos de recuperar la dimensión de la ciudad como espacio de encuentro, donde podamos convivir y relacionarnos. La calidad de nuestros espacios públicos se podrá evaluar sobre todo por la intensidad y la calidad de las relaciones sociales que facilitan, por su fuerza mezcladora de grupos y comportamientos.

La programación cultural debe ser un facilitador y potenciador de esos espacios naturales de relación grupal, que a su vez ayudan a aumentar el sentimiento grupal y de pertenencia a su entorno.

Por ello y finalmente, esto supone, a nuestro entender que la cultura debe saber ganarse un espacio de transversalidad que aglutine diversas áreas competenciales. Áreas como las de educación, la industria y, en especial, las industrias culturales, la Hacienda, desde la perspectiva de las medidas fiscales de promoción del tejido y agentes culturales. Áreas todas ellas que no deben de ser ajenas a las estrategias y proyectos culturales de un País como el nuestro.

Estoy seguro que hoy, en esta jornada formativa y reflexiva, vamos a avanzar en la definición y puesta en práctica de políticas culturales más dinámicas y proactivas para lograr esa Euskadi del futuro que estamos soñando en este Think Gaur Euskadi 2020.

Eskerrik asko!